# AZOKA EGUNA

Azoka eguna dugu gaur
Auzoan
Nire balkoitik entzuten da
Burnien arteko zarata

Atontzen postuak hornitzen
Sentsuen ospakizuna
Kolore, usaiak,
Esnatzerako prest dena

AZOKA EGUNA, AUZOAN
JENDE GUZTIA AGURTZEN DA ELKAR
IRRI EGITEN DU AIAKO HARRIAK
MUNDUARI BIRA IRUN HERRIAN

AZOKA EGUNA
ATZO EURIA URDANIBIA PLAZAN
IZAR GORRIA PIZTEN DA
MOSKUKO LEHOIEN EKIA

Txoriak eta oilarrak
Zuhaitzak eta gaztak
Alfonbrak eta zapatak
Tangak eta barazkiak

Homer Simpsonen pijamak
Olibak eta frutak
Eta Laliren kioskoan
Kassette eta kazetak

Gernikan bonbardaketa
Azoka eguna izan zen
Aitonak so egin zerura...
Hodeirik ez da ikusten

Martxan da Gazte Asanblada
Kamioia eta bafleak
Ez da "trio elektriko" baina...
Ez du sponsor Movistar, kar, kar...






Senti
ezazue
musika
hau
gorputzan!
Erritmo
honek
eramango
beste
dimentsiora
Euskal
Herria
Jamaika
Clash
burrunbatuko
lurra

Hasiera izan zen scratch bat
Gero etorri zen big bang-a
Leherketa erraldoia
Zulo beltzetik su bola
Euskal Planeta espazioan
Eta Reggae Boyz-en baloia
Bi herrien arteko talka
Sustraietatik helduta
62an, gu laster batean
Independentzia. MORE FIRE!

EUSKAL HERRIA JAMAIKA CLASH
Bi herrien arteko topaketa
EUSKAL HERRIA JAMAIKA CLASH
Hoberena etortzear dago eta
EUSKAL HERRIA JAMAIKA CLASH
Kingston ere bai Nafarroa baita
EUSKAL HERRIA JAMAIKA CLASH
Sakanako panterak, Maroon lehoiak

Udaberrien iria
Quebec negua bada
Gurea udazkena
Udan uzta, elkarlana
Wyclef Jean: Welcome to Haiti
Guk diogu: Ongi etorri
Kontatu hau umeei:
Geure nortasunari eutsi
Helarazi indarra, ska musika
Independentzia jaia da

EUSKAL HERRIA JAMAIKA CLASH
Jamaika ikusteko jaio gara
Nazioarteko Moneta Fondoa, ospa!
Sortzeko dekonstruktibismo DUBa
Gizartea eraldatzeko lanabesa

EUSKAL HERRIA JAMAIKA CLASH
Bi herrien arteko topaketa
Hoberena etortzear dago eta
I&I, nik eta nire burua
Mundu berri baten taupada da jada!

# BAXUA ETA LURRA



Ozen demonio
Zegoen sound system umetokian
Sabeleko hormak
Dar-dar zeuden une guztietan
Rude Boy astronauta
Dantzan isurkari amniotikoan
Mikroklima hortan
Matrix - hiria / mundu-matrixa

Errealitate alde honetan
Hauteman Lurra
Oihartzun akustikoa
Eroalea bezala
Baxua amatiarra dela
Gozatzen bada
Zenbat ta altuago
Ziurrago sentitzen zara

Gauza apaingarrien munduan, bizi bagara
Musika edergarri kulturala besterik ez da
Ezjakintasuna garatzeko amodioa
Horrenbeste kantu lelo, kutsadura akustikoa
Sentipen zaurituei gurtzeko tematiak
Striptease emozionala, denbora-pasa industrian
Zuk beste liga batean jokatzen duzula
Diot, laberintu-frontoi-etxea-herria-mundua

Maite zaitudala, esan behar?

Zuk beste liga batean jokatzen duzula
Diot, laberintu-frontoi-etxea-herria-mundua

Baxuaren kultura da
Horregatik reggae dugu sendagarria
Begira Wu-Tan Clan, Tom Waits eta Mikel Laboa
Nahasten medizina eta musika

Linton Kwesi Johnson eta Smith&Mighty
Michael Frantiren: gizatasunari eutsi
Canettik zioen: "seme - alaba duena,
Filosofoek ez zekiten, gehiago da baina."

Existentziaz, pareten kontra pilota
Galdera - erantzunak, jokoa hastera doa
Oihu dezagun Franka Potentek bezala
Bizkor Lola bizkor, bizitza miraria baita




**PLASTIC TURKEY**
**INDIOILARRA**
**PLASTIC TURKEY**
**PLASTIKOZKOA**

Amesten al duzue
Ardi mekanikoekin?
Replikanteei galdera
Gobernariei ordea:

Amesten al duzue
Plastiko panpinekin
Lehertuta zatietan
Bonba mordoengatik

Maniki elbarrituak
Hankak eta besoak
Ate birakarian
Zaudete harrapatuta?

Iruzurrezko jana
Gezur izurritea
Mila eta bat gauak
Ezin aurkitu amaia

**PLASTIC TURKEY**
**ZER SENTITZEN DA?**
**PLASTIC TURKEY**
**AMETSGAIZTOA**

Begi odoleztatuak
Bideo jokoan bezala
Gaueko poluzioa
Hazia ez, petrolioa

Lazturaren bazar bat
Dator giza laguntza
"Fellatio" batengatik
Duzu esne litroa

Orgasmo perfektua
Du izena Operazioak
Uranio murriztua
Eta ur pozoindua

"Rock the Kasbah" kantua
Basamortuko ekaitzan
Misio betegabea
Oilo faltsua da bakea

**PLASTIC TURKEY**
**INDIOILARRA**
**PLASTIC TURKEY**
**PLASTIKOZKOA**

**PLASTIC TURKEY**
**ZER SENTITZEN DA?**
**PLASTIC TURKEY**
**AMETSGAIZTOA**

**PLASTIC TURKEY**
**DENA FARTSA DA**
**PLASTIC TURKEY**
**ZER DA ERREALA?**

**PLASTIC TURKEY**
**INDIOILARRA**
**PLASTIC TURKEY**
**PLASTIKOZKOA**

# ASKATASUN PARABOLIKOA




**Azken patua da**
**Aurretik finkatua**
**Fatalismoaren doktrina**
**Haren jokabide**
**Nahiak ezin alda**
**Onartzean datzan jokaera**

**HAUXE DUGU**
**ASKATASUN PARABOLIKOA**
**Inportantena da**
**aukeratzeko bidea**
**HAUXE DUGU**
**ASKATASUN PARABOLIKOA**
**Katea aldatzeko gaia,**
**ez esklaboa?**

"Esnatu zenean, dinosauroak
Hantxe jarraitzen zuen( Monterrosorena
Fosilisatze intelektuala
Telebistaren eraginez edo izua

Atxagaren "Trikuarena" ipuinean bezala
Berritu gabe hiztegi unibertsala
Hodi katodikoak, orain plasma
Elektroi jarioak kolpatuz: argia

**HAUXE DUGU ASKATASUN PARABOLIKOA...**

"Izena duen guztia omen da"
Chomskyk dio: CNNn ez dena, ba ez da
"Baina ikusten ez bada ez delako ez da" (Aranbarri)
Denok beharko fama, 15 minutuak (Wharhol)

Hegal egiten duten dordokak
Satelite Jauna eta bere kuadrila
Haurtzaroaz tajuz anputatuak
Lehenaldiaz eta etorkizunaz

Mugarik gabeko nazio bakarra
Konsumitzaile libreak, desklasatuak
Kapitalaren amarrua, soaldi hutsalak
Erakusleihoan dena sahiestezina

Skyline-a, antenaz itsaso bat
Telebista-pantailak gaizki fokatuak
Degradazioa da ikuskizuna
Sagu lasterketa, konbertituen sumina

**HAUXE DUGU ASKATASUN PARABOLIKOA...**
**DEMOKRAZIA MATXURATUETAN, ZIKIROTUTA**

Harresien hirian barna
Bizkarroien estaltze besta
Gazteluzar kafkianoetan
Dantzarako prest morroiak

Ipuinetik printsesa arroztuak
Izengabe eta ikustezinak
Desechos, BKC Rivas herrian
Barbakoa sutan hiri amaitugabetan

Sari banaketan eskerrak
Jainkoari, seme-alabei
Gurasoak, abokatuei
Zerga-aholkulari, txartelari

Hillary Swankek K.O. utzita
Million Dollar baby zara
"Aur revoir Triunfadores" ikustera
Candela Peñarekin banoa

EZ GAUDE, EZ, GONBIDATUTA
EZ, BERAIEN BESTARA
(MONGOLIAN BARBECUE)

Kontzertuak G-8ren alde
Bill Gates eta guzti han azaldu zen
AOL, Time Warner, Disney, MTV
Ford, Volvo, Nokia, EMI Music

Pobrezia lanabes marketing
Jada ez da gerra kriminalik
Zirkutik ihes egin ta zatoz
Pailazo matxinoen armadarekin

EZ GAUDE, EZ, GONBIDATUTA
EZ, BERAIEN BESTARA
(MONGOLIAN BARBECUE)

Hesirik gabeko lurraldea Mongolia da. Barbakoan jana.



# LA FILLE DU QUARTIER POPULAIRE




LE MOUVEMENT DE LA FILLE
DU QUARTIER POPULAIRE
A LE POUVOIR D'OUVRIR
TOUTES LES PORTES QU'ELLE VEUT

Diziplina eza artea
Borrokarako duen adorea
Liluratzeko ahalmena
Mila urteko kulturen miztura

Begien bidez solasa
Kale zaratatsuen artean
Lurrin bat bezalakoa zara
Bizitza ontzeko espezia

Kondenatua Inpernura
Galzkiaren Ardatza-ren
Biztanlea
Integristen ezintasuna
Arratseko bostak badira

Bagdad, Beirut edo Amman
Damasko, Alger, Kabul
Edo Teheran
Hegoa Iparra denean
Beti zerbaiten eklan gara

Haizea dator Jordan ibaitik
Soinua Mediterraneo itsasotik
Mohamed Al Durra umearen graffiti
Jamal, nire adina duen aitarekin

Posible al da bizitza berreraiki?
Baietz beste murru bat erori!
Jerusalemgo bortan jendea adi
Damasko atetik helduko oihuari:

YALAH YALAH RAMALLAH!!

Allenderena oroituz, odola ematean:
"Zumardi handiak irekiko dira
Hortik pasatzeko gizaki askea
Jasotzeko gizarte hobe bat"

YALAH YALAH RAMALLAH!!

Al Kasaba zineman
Woody Allenen filma
"Melinda&Melinda"
Eta "Paradise, orain da"

YALAH YALAH RAMALLAH!!




YALAH YALAH YALAH RAMALLAH ... Palestinan naiz jada ... Esan nuen eta itzuli naiz ... Apalkuntza amaitu da ... olibondoak nonahi ... YALAH YALAH YALAH RAMALLAH

# LA LINEA DEL FRENTE




KORTATU, 1986

HITZAK: FERMIN MUGURUZA. MUSIKA: FERMIN ETA IÑIGO MUGURUZA

Siempre me ha interesado
Esa jerga que emplean los rastas
Hablan de batallas
Que no puedes encontrar en los mapas

Ten cuidado al pasar a mi lado
Porque soy una cuchilla andante
Otro dice vivir en la linea del frente
A alguien se le oye quedar
En la barricada a las tres
A las fuerzas de la victoria quisiera conocer

Si escuchas esto
Prepara tu mente
Para encontrarnos
En la linea del frente
Salta una valla
Dobla una esquina
En cualquier adoquín está
La primera linea

Es el rock de la linea del frente
Que se note que estás presente

Y ahora me estoy convirtiendo
En una cuchilla andante
Es duro vivir
En la linea del frente
Te quiero y quedamos
En la barricada a las tres
Con las fuerzas de la victoria
Al amanecer

Siempre me ha interesado
Esa jerga que emplean los rastas
Hablan de batallas
Que no puedes encontrar en los mapas

Es el rock de la linea del frente
Que se note que estás presente

Beso bat ezpata
Aizkora bestea
Gorputza pagoa,
trinkoa, azal urkaria

Bihotza tenplu bat
Txol korazatua
Sarbide zailak ditu
Klabe-armadurak

5-7-5 - HAIKU ERRITMORA JOZ
5-7-5 - KODE POETIKOA ADOS
5-7-5 - BRUCE LEE-REN ESTILOZ
5-7-5 - XAMURAIA ERRESPETOZ

Mingaina katana
Bertsotan Egaña
Zorrotza Ezkurrak jotako pilota bezala

Beethoven bat, altzairuarena
Zatoichiren doitasuna
Euri tanten konpasera,
Lucy Liu-ren gardentasunaz

5-7-5 - DRAGOIARENA JASOZ
5-7-5 - IRAKASPENAK GOGOZ
5-7-5 - KALEAN AGURTU GHOST DOG
5-7-5 - ZURE XAMURAIA BETIKOZ

Atzean mendia
Itsasoa aurrean
Bizkarra gerizatua,
Zabalik mundurat

Eguzki Lorea
Baratza ereindua
Izan bizkor oximoronez
Lur minatuan



BEAMON JAUZIA
HEGAZTIA ALA GIZONA?
GEZURRA ALA EGIA?
BELTZA ZORAGARRIA DA

Beamon, Beamon
Hegal egiten Beamon
XXI. Menderantz
9 metroz

Beamon, Beamon
Hegal egiten Beamon
Beltz harrotasunaren
Urtean edonon

Beamon, Beamon
Gora, gora, Mexikon
Pantera Beltzak
Nagusitu ziren berton

Beamon, Beamon
Hegal egiten Beamon
XXI. Menderantz
9 metroz

BEAMON JAUZIA
HEGAZTIA ALA GIZONA?
GEZURRA ALA EGIA?
BELTZA ZORAGARRIA DA

